

# EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAKO IKERTALDEEN JARDUERETARAKO 2016-2021eko DIRU LAGUNTZEN DEIALDIA

Deialdi honi dagokion informazio guztia (eskariak izapidetzeko beharrezko agiriak, epeak, harremanetarako pertsonak...) Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean dago:

<http://www.ehu.es/es/web/ikerketaren-kudeaketa/deialdiak-ikerketa-taldeak-eta-piuk>

**OHAR GARRANTZITSUA:** Jarraian azaltzen diren urratsak bete behar dira, alde batetik, Eusko Jaurlaritzak ezarritako prozedura betetzeko eta, bestetik, Ikerketaren arloko Errektoreordetzari deialdiak eskatzen dituen eskarien izapideak kudeatzen laguntzeko.

Laburbiltzeko, honako data hauek hartu behar dira kontuan:

**Azaroaren 25a** – I. eranskina bidaltzeko epemuga (taldekideak adierazi behar dira agiri horretan, hala barnekoak nola kanpokoak).

**Abenduaren 10a** – Errektoreordetzak eskaera orri sinatua (aplikazioa ixtean sortuko da) jasotzeko epemuga. Gero, Ikerketako errektoreordeak sinatuko du.

**Abenduaren 16a** – Errektoreordetzak eskariak erregistroan aurkezteko epemuga (deialdiaren itxiera).

Adierazitako epeak betetzen ez badira, baliteke Ikerketaren arloko Errektoreordetzak ezin sinatzea eskariak. Izan ere, eskari ugari jasotzea espero da, eta, horrenbestez, aplikazioak arazo informatikoak izan litzake deialdiaren azken egunetan.

## ESKARIAK FORMALIZATZEA (7. art.)

**Eskabide orri elektronikoa**

**(7.1 art.)**

Ikerketa talde bakoitzak bide telematikoz bete behar du eskabide orria, <http://www.ikerketa-taldeak.net> aplikazioa erabilita.

Horretarako, taldeko ikertzaile nagusiak alta eman behar du erabiltzaile moduan, eta aplikazio horretan ematen zaizkion jarraibideak bete. Aurreko deialdietako batean (2010-2015 edo 2013-2018) akreditatutako talde baten kasuan, ikertzaile nagusiak bere aurreko erabiltzaile izena eta pasahitza erabili ahal izango ditu, aurreko eskabidean aurkeztutako informazioa berreskuratuzko. (**Oharra:** ikertzaile nagusiak aurreko urteetatik berreskuratutako informazioa berrikusi behar du; izan ere, arlo berri batzuk gehitu dira, eta horiek ere bete egin behar dira).

**Aplikaziorako  
dokumentazioa  
(7.2 art.)**

2.- Aplikazioan, taldeetako bakoitzari dagokionez, erakunde eskatzaileek honako informazio hau sartu beharko dute:

a) **ESKABIDEAREN DATUAK:**

- **Erakunde eskatzailearen datu orokorrak.**

- **Ikertzaile nagusiaren datuak.**

- **Ikerketa taldearen osaera eta datu orokorrak.**

- **Taldearen egin duen zientzia jardueraren oroitidazkia (2010etik laguntza eskatzen den egunera artekoa):** zientzia ekoizpena, trebakuntza ahalmena, ikerketaren finantzazio iturriak eta jakintza transferitzeko jarduerak.

- **Lan egitasmo, helburu eta jardueren programa,** zeinak honako hauek hartuko dituen ezinbestean: laguntza exekutatzeko epe maximoa (2016-2021), horren kronograma eta mugarri nagusiak. Ekoizpen zientifikoari, prestakuntzari, transferentziari eta finantzaketa bideei dagokienez, taldearen helburuak kuantifikatu egin beharko dira, hirurtekoetarako (2016-2018 eta 2019-2021) lortu behar diren adierazleen bitartez.

- 2016-2021 epealdirako **eskatutako aurrekontua.** Diruz lagun daitekeen bakoitzerako -6. artikuluan zehaztuak- eskatutako zenbatekoak kontsignatu egin beharko dira. Horrez gain, aipatu zenbatekoak justifikatu egin beharko dira, izan duten destinoari buruzko deskripzio zehatzaren bitartez.

b) **TALDEKO IKERTZAILE NAGUSIAREN CURRICULUMA.** Taldeko ikertzaile nagusiaren curriculuma aurkeztu beharko da unibertsitate edo ikerketa gaitan eskuduntza duen edozein administrazioaren formatu normalizatuan. Dokumentazio hori **pdf formatuan** aurkeztu beharko da, <http://www.ikerketa-taldeak.net> aplikazioan.

Gainerako taldekideen zientzia ekarpen nagusiak jaso beharko dira eskaera inprimakiko taldearen zientzia jardueraren oroitidazkian. Zientzia Politikako Zuzendaritzak edozein taldekideri eskatu ahal izango dio dokumentazio gehigarria ekar dezala.

c) 4.4 artikuluan zehaztu **GUTXIENEO PRODUKZIOAREN BETEKIZUNAK KONPLITU IZANA EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA.** Dokumentazio hori **pdf formatuan** aurkeztu beharko da, <http://www.ikerketa-taldeak.net> aplikazioan.

**Oharra:**

- Ikertzaile nagusiak idatzi bat sinatuko du doktore bakoitzeko 2010etik eskabidea aurkezten den bitartean egiten diren 2

**argitalpenak** akreditatzeko. Idatzi hori ikertzaile nagusiak aplikazioan sartutako datuetatik sortuko da. INk deialdiaren 4.a) artikuluan eskatutako dokumentazio gehigarria erantsi beharko du aplikazioan, adierazitako informazioa egiazkoa dela bermatzeko.

- 2010etik eskabidea aurkezten den bitartean **bukatu eta defendatu diren bi tesiak** akreditatzeko, ikertzaile nagusiak agiri bat deskargatu beharko du **GAURetik**, eta, horrekin, hala defendaturiko tesiak nola eginbidean direnak egiaztatu ahal izango dira, deialdiaren 4.b) artikuluan adierazten den moduan. **Defendaturiko tesiak UPV/EHU ez beste erakunde batzuetan** akreditatu nahi badira, ikertzaile nagusiak ziurtagiri bat eskatu beharko die erakunde horiei, eta ziurtagiri horretan honako datu hauek bilduko dira gutxienez: titulua, egilea, unibertsitatea, saila, data, helbidea eta kalifikazioa (nazioarteko tesia den ere adierazi behar da).
- **Ikerketaren arloko Errektoreordetzak** akreditatuko du 2013-2015 arteko lehia deialdietan gauzatu den **ikerketak proiektua**. Ikertzaile nagusiak langileen eranskinean adieraziko du zein proiektu akreditatu nahi duen. Dagozkion egiaztapenak egin ondoren, INri bidaliko zaio proiektu horren ziurtagiria, taldekideentzako jarraibideekin batera. Eskari bakoitzeko proiektu bakar bat akreditatu behar da, nahiz eta aplikazioan ebaluaziorako adierazitako epean emandako proiektu guztien datuak sartu behar diren. Akreditatu beharreko proiektua UPV/EHU ez beste erakunde bati badagokio, ikertzaile nagusiak ziurtagiri bat eskatu beharko dio erakunde horri, eta ziurtagiri horretan honako datu hauek bilduko dira gutxienez: proiektuaren titulua, ikertzaile nagusia, emandako diru laguntza, laguntza eman duen erakundea, erreferentzia eta indarraldia.

## ESKABIDEEN AURKEZPENA

### 1. TALDEKIDEEK BALDINTZAK BETETZEN DITUZTELA EGIAZTATZEA

Datuak aplikazio telematikoa sartu aurretik, ikertzaile nagusiak e-mail bat bidali beharko du bere ikastegiaren arabera dagoen helbide elektronikora (kontsultatu Ikerketako webguneko harremanetarako erlaitza), eta I. ERANSKINA atxiki beharko du, beteta, **2015eko azaroaren 25a baino lehen** (Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean eskura daiteke). Hori nahitaezkoa da deialdian ikertzaile nagusiarentzat eta gainerako taldekideentzat ezarritako baldintzak betetzeko.

I. ERANSKIN horretan, halaber, taldekideen zerrenda jasoko da, eta eskariarekin bat egin nahi duten kanpoko kolaboratzaileak ere adieraziko dira (**oharra**: haien jatorriko erakundeen

baimena aurkeztu beharko da kanpoko langile horiek onartzeko).

Deialdian ezarritako gutxieneko baldintzak betetzeko, INk **zein proiektu akreditatu nahi duen** adierazi beharko du I. eranskinean, eta hauek zehaztuko ditu: erreferentzia kodea, titulua eta ikertzaile nagusia (soilik UPV/EHUri emandako proiektuen kasuan). Era berean, erkaketa egiteko, **defendaturiko/inskribatutako tesien ziurtagiria** (kasuaren arabera) erantsiko du, GAURetik deskargatua, gutxieneko baldintzak betetzen direla bermatzeko, alde batera utzita aplikazio elektronikoan txertatu diren ala ez. **Defendaturiko tesiak UPV/EHU ez beste erakunde batzuetan** akreditatu nahi badira, ikertzaile nagusiak kanpoko erakundeak emandako ziurtagiria bidali beharko du, eta ziurtagiri horretan honako datu hauek bilduko dira gutxienez: titulua, egilea, unibertsitatea, saila, data, helbidea eta kalifikazioa (nazioarteko tesia den ere adierazi behar da).

Eranskina egiaztatzen denean, aurkezturiko taldearen inguruko adostasuna igorriko zaio ikertzaile nagusiari (kasuan kasuko aldaketekin, hala badagokio), bai eta akreditatu beharreko proiektuaren ziurtagiria ere, deialdiaren 7.2.c artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

**Proiekturako nahitaez egin behar da eranskin horretako berrikuspena.** Ikertzaile nagusiak ziurtatzen du taldekideek baimena eman dutela eta taldekide gisa parte hartzea onartzen dutela. Gainera, konpromisoa hartzen du, alde batetik, laguntzaren aldiaren sortzen diren bajen berri emateko Ikerketaren arloko Errektoreordetzari eta, bestetik, erakunde honekin lotura galdu duten pertsonen gasturik ez egoteko, egoera hori aldatu ezean.

I. eranskin hori bidali ezean edo eskaeran egin beharreko aldaketak bertan zehaztu ezean, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak ez du eskaera sinatuko, eta, ondorioz, ez da deialdian aurkeztutzat joko.

## 2. ESKABIDEEN AURKEZPEN FORMALA

Eskabidea oso-osorik betetzen denean eta datu guztiak aurkeztuta daudenean, **inprimatu egin beharko da, eta inprimaki hori taldeko ikertzaile nagusiak sinatu beharko du** (sinadura originala izango da, ez eskaneatua). Ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzan aurkeztuko da inprimakia, legezko ordezkariak sina dezan.

Paperezko agiri horrekin batera, INren beste laguntza batzuei buruzko adierazpena igorriko da, bai eta kanpoko taldearen baimen agiria ere, hala badagokio; bietan sinadura originala jarriko da (**oharra**: kanpoko taldeen baimenen kasuan, behin-behinean eskaneaturiko sinadura onartuko da, originala jasotzen den arte).

Aldi berean, eskabide orri eskaneatua langileen I. ERANSKINAREN berrikuspena jaso den postontzira bidaliko da, elektronikoki artxibatzeke.

Eskari ugari jasotzea espero da, eta unibertsitateak egin behar du eskaeron behin betiko aurkezpenean (bai eta deialdian eskatzen den gainerako dokumentazioarena ere). Hori dela eta, **Ikerketaren arloko Errektoreordetzak 2015eko abenduaren 10a baino lehen** jaso beharko du eskabide orri sinatua.

Unibertsitateak ezarritako barne epeak betetzen ez badira, ikertzaile nagusiak izango du legezko ordezkariaren sinadura lortzeko eta eskaeraren aurkezpene formalaren egiteko ardura.

Dokumentazio orijinala barneko postaren bidez bidaliko da helbide honetara (**ez erregistroaren**

**bidez):**

**Ikerketaren arloko Errektoreordetza (Deialdiak)**  
Leioako Campuseko Errektoretza  
Sarriena auzoa z/g, 48940 (Leioa)

**INFORMAZIO GEHIAGO**

Hauek dira eskaera betetzeko behar diren UPV/EHUren datuak:

- **IFK:** Q4818001B
- **Helbide soziala:** Sarriena auzoa, z/g
- **Posta kodea:** 48940
- **Udalerria:** Leioa
- **Legezko ordezkaria:** Fernando Plazaola Muguruza
- **Kargua:** Ikerketaren arloko errektoreordea